



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/02/10

Batzar Nagusiek Bilboko Arte Ederren Museoaren handitzea "aztertu beharra" adierazi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek “deia egin gura dabe”, Aldundiaren bitartez Bilboko Arte Ederren Museoa handitzeko azterlana bultzatu daiten. Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztu dauen eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldek bultzatu daben arauz besteko proposamenaren bitartez eskaerea egin da gaur goizean Bizkaiko Batzarretako Euskera eta Kulturako batzordean, Bilboko Museoko Patronatuko kide danez, Aldundiak Patronatu horren aurrean planteau daian Museoa etorkizunean handitzea “aztertu beharra”. Ekimenean eskaerea egiten da horretara jokatuta “hobeto” erabili ahal izateko “arte, kultura eta kultura-turismoaren erakargarritasuna” bultzatzeko dituan “gaitasunak”, “lehen mailako museo izateko dituanak eta XIX. eta XX. mendeetako euskal artearen erreferentziazko zentroa izateko be badituanak”.

Arturo Aldecoa PP taldeko batzordekideak defendidu dauenez, handitze hori aztertze “unea heldu da”. “Ez dogu esaten ez non ezta zelan be, aztertu daitela bakarrik”. Bere esanetan, “XIX. eta XX. mendeetako euskal artearen bilduma hoberena” gordeten dauen Bilboko “Museo harri-bitxiak” leku “egokia” eukitea merezi dau, bere bilduma bikaina erakutsi ahal izateko. Helburua, ondoan dagoan Guggenheim Museoa bisitetan daben “600.000 atzerritar” horreek erakartea da. Gaur egun, kanpotik datozen bisitarien “%7 baino” ez da pasetan “parkeko museotik”, adierazo dau.

1970ean eta 2001ean egindako bi handitzeen ostean, PSE-EE-ko Juan Oterminek gogoratu dauenez, Iñaki Azkuna uriko alkate ohiak, bere gordelekuetan “10.000” artelan dituan museoa handitzeko beharra planteau eban. Artelan horreetako batzuk “Greco, Picasso, Durero edo Murillo” moduko nazinoarteko artista handiak egindakoak dira. Oterminek adierazo dauenez, gaur egun dagoan lekuan handitze lanak egiteak arazoa dakar, Bizkaiko uriburuko urigintzako arauen kontra doalako. “Ezin da leku horretan handitu. Beste leku bat topau beharko litzateke”, esan dau.

Batzarretako Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldea, PP taldearen proposamenean “ikusten denaren alde” agertu da, hau da, “deia egitea” Museoaren Patronatuari, bera dalako Aldundiaren agindua onartu behar dauena. Dana dala, Mikel Baganek “zehaztu” gura izan dau handitze lanek itxaron egin beharko dabela, Aldundiak konpromisoa hartu dauelako, Bilboko Udalgaz batera, Euskal Museoa barriztatzeko beharrak finantzetako. Hori dala eta, une honetan ez dago partidarik aurrekontuetan Arte Ederren museoa barriztetako.

Ekimenaren kontrako botoa emon dauen EH Bilduren berbetan, popularren proposamena “nahasia” da, kontzeptu asko nahasten ditualako. Meritxell Elgezabal batzordekideak hainbat galdera jarri ditu mahai ganean, handitzeagaz bilatzen diran



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

helburuak, proiektuaren bideragarritasuna edo eginbehar hori abalauko daben txosten teknikoen beharra, beste batzuen artean. Bilduko batzordekideak kritikau dauenez, une honetan betetan dauen lekuan handitzea uriaren Plan Orokorraren kontra doa, beste errazoi batzuen artean, Bilboko Metroaren 4. linea izango danaren trazauagaz bat etorri daitekkelako. Itaundu egin dau, horren guztiaren ostean ez ete dan egongo komunikazino arazoa gaur egungo museoak saltzeko edo, “urteak igaro diranez, orain handitzea egitea toketan ete dan?”.

Abstenidu egin dan Podemos Bizkaia taldearen eretziz beharrezkoa da museoak “oihartzun handiagoa” izatea, baina horretarako ez da beharrezkoa instalazinoak handitzea, “museoa dinamizetea baino, turistarengan horrenbeste pentsau beharrean bertako jendeagan pentsauz”. Elsa Pamparacuatro bisitariak erakartearen alde agertu da, “ikasleentzako bekak” sortuz, Guggenheim museoagaz batera egiten dan sustapena hobetuz eta erakusketa barriak bultzatuz. Emakume artistei zuzendutako erakusketea jarri dau adibide moduan.

LAN KLASIKOAK ARGITARATZEA ALDUNDIAREN WEBGUNEAN

Euskera eta Kulturako batzordeak onartu egin dau Foru Aldundiak “1936 baino lehen euskerara itzulitako lan klasiko grekoak eta latinoak” bere webgunean sartzea, lan horreek egile eskubideetatik libre dagozalako. PP taldearen ekimena oso tarte txikiagaz onartu da, aldeko 3 boto (PP eta Podemos Bizkaia) kontrako 2 (PSE-EE), eta EAJ-PNV eta EH Bildu taldeen 10 abstentzino izan ditualako.

Talde guztiak bat etorri dira esatean informazino hori herritarren esku egon behar dala Aldundiko webgunean, baina PSE-EE, EH Bildu eta EAJ-PNV taldeek adierazo dabe euskerara itzulitako lan klasiko horreetako batzuk beste webgune instituzional batzuetan dagozala, Eusko Jaurlaritzaren “kulturclick” gunean edo Sancho el Sabio Fundazioaren plataforman (fsancho-sabio.es

). “Nahikoa izango litzateke gune horreetara esteka bat jartea”, esan dau Juan Otermin sozialistak. Txusa Padronesek (Bildu) eta Ana Esther Furundarenak (EAJ-PNV) uste dabe, baita be, nahikoak izango litzatekezala “estekak” jartea, “baliabideak optimizetako” edo “esfortzuak ez bikoizteko”.

ARANOAREN HORMA-IRUDIARI BURUZKO AZALPENAK

Batzordearen saioa, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andreak, Juan de Aranoak 1958an Foru Jauregiko areto batean margotu eban eta “Bizkaia” izena daukan horma-irudi triptikoaren kontserbazino egoeraren barri emonez hasi da. EH Bildu eta PP taldeek diputatu andrea Batzarretara etorteko eskaerea egin dabe, artelan hori jasoten dauen aretoa “biltegi/bulego” bilakatu ei dalako. Horma-irudia mahaiz, aulkiz, bulegoko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

altzariz... inguratuta egon da, beste objektu batzuen artean, talde bi horreek salatu dabenez.

Diputatu andreak “onartu egin dau” talde biek egindako “gaitzezpena”, eta jakinarazo dau aretoa hutsitu egin zala egoeraren barri izan eta “egun gitxitara”. Bertan administrazio zerbitzuak –“eta ez biltegia”, zehaztu dauenez– jarteko erabagia ez zala “egokia” izan onartu dau. Bilbaok azaldu dauenez, “atoan” agindu zan bulegoak beste leku batera eroatea, eta une honetan Aranoak margotu eban lekua “garbi” dago. Leku hori “beti” izan da “igaroteko gunea” eta “orain 15 urtetik”, bere aurrean dagoan gunea behar egiteko lekua da, baina ez zan “2014. urtearen erdialdera arte hasi” bulego moduan erabilten margolanetik gertuen dagoan ingurua.

Haren egoerari jagokonez, Bilbaok esan dau, kontserbazino zerbitzuek adierazo dabenez, margolana “orokorrean egoera onean dagoala, kontserbazinorako esku-hartzeak behar dituan arren”. Horren aurretik, EH Bildu eta PP taldeek margolanaren parte bat kaltetuta dagoala adierazo dabe. Diputatu andreak esan dauenez, badago margolan horren eta Bizkaiko foru ondarearen barruan dagozan beste batzuen kontserbazino lanak egiteko behar besteko partidea aurrekontuetan. Azaldu dauenez, “sistematizazio” lana egingo dabe, holango artelanak aldi behin txeketako.

Batzarretako taldeak konforme geratu dira diputatu andrearen azalpenakaz, eta bat etorri dira esatean beharrezkoa dala Aldundiak balioan jartea Foru Jauregiko artelanak, etorkizunean, bertan dagozan administrazio guneak kentzeko eskaria eginez. Bilbaok azaldu dauenez, “2017. urtetik aurrera” Jauregiko altxorak erakusteko aukerea aztertzen ari dira, baina egoitzaren erabileren ganeko erabagia “ez dot nik hartu behar” esan dau. Onartu dauenez, “etorkizunean egon daitekezan erabilera moetak” aztertzen ari dira, baina kontuan izan behar da Kale Nagusiko egoitzan “jende askok” egiten dauela behar, eta beharginak bertatik urten behar izateak “diru publiko asko” eskatuko leuke.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

10/02/2016

Las Juntas Generales apuntan a la "necesidad de estudiar" la ampliación del Museo Bellas Artes de Bilbao

Las Juntas Generales de Bizkaia quieren dar un “toque de atención” para que, a través de la Diputación, se impulse un estudio de la ampliación del museo Bellas Artes de Bilbao. Una proposición no de norma presentada por el grupo Popular Vizcaíno (PP) y apoyada por los grupos junteros PNV y PSE-EE, ha abogado esta mañana en la comisión de Euskera y Cultura de la Cámara vizcaína por que la Institución foral plantee en el Patronato de la pinacoteca bilbaína como miembro que es, “la necesidad de estudiar” dicha ampliación. En la iniciativa se insta a aprovechar “mejor” las “potencialidades” del museo “para la difusión del arte, la cultura y la atracción del turismo cultural”, y su “capacidad de ser no solo un museo de primer nivel, sino el centro referente del arte vasco de los siglos XIX y XX.”

El apoderado del PP Arturo Aldecoa ha defendido que “ha llegado el momento” de analizar esta ampliación. “No decimos ni dónde, ni cómo, solo que se estudie”. A su juicio la “joya museística” bilbaína que guarda la “mejor colección de arte vasco de los siglos XIX y XX”, según él, merece tener un espacio “adecuado” para exponer su ingente colección. El objetivo es atraer a esos "600.000 extranjeros" que visitan el vecino Museo Guggenheim. Hoy, “sólo el 7%” de los visitantes que vienen de fuera, pasan por el “museo del parque”, ha apuntado.

Tras las dos ampliaciones realizadas, una en 1970 y otra en 2001, Juan Otermin, del PSE-EE, ha recordado que el exalcalde de la villa, Iñaki Azkuna, ya planteó la necesidad de ampliar un museo que contiene “10.000 obras” en sus depósitos, algunas de prestigiosos artistas internacionales como el “Greco, Picasso, Durero o Murillo”. Otermin ha apuntado que la ampliación en su actual ubicación tiene un problema al chocar contra las normas urbanísticas de la capital vizcaína. “No se puede ampliar allí. Habría que buscar otra ubicación” , ha sostenido.

El grupo juntero Nacionalistas Vascos (PNV) se ha mostrado “a favor de lo que se deduce” en la proposición del PP como es un “toque de atención” al patronato del Museo que es quien debe aceptar el encargo foral. Sin embargo, Mikel Bagan ha querido “puntualizar” que la ampliación deberá esperar, ya que la Diputación se ha comprometido a cofinanciar junto con el Ayuntamiento de Bilbao, la reforma del Museo Vasco, por lo que actualmente no existe partida presupuestaria para acometer una reforma del Bellas Artes.

EH Bildu, que ha votado en contra de la iniciativa, ha definido la propuesta popular de “liosa” al mezclar muchos conceptos. La apoderada Meritxell Elgezabal ha puesto sobre la mesa varios interrogantes como son los objetivos que se buscan con la ampliación, la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

viabilidad del proyecto o la existencia de informes técnicos que avalen tal necesidad. La junta de Bildu ha criticado que la ampliación en su ubicación actual va en contra del Plan General de la ciudad, entre otras cosas por la posibilidad de coincidir con el trazado de la futura línea 4 de Metro Bilbao. Ha preguntado si detrás no subyace un problema de comunicación para vender el actual museo o es que “con el paso de los años, ¿toca ahora hacer una ampliación?”.

Podemos Bizkaia, que se ha abstenido, cree que es necesario que el museo tenga "más repercusión", pero esta no pasa necesariamente por una ampliación, “sino por una dinamización del mismo, sin pensar tanto en el turista y más en el público local”. Elsa Pamparacuatro ha abogado por atraer visitantes creando “becas a estudiantes”, mejorando la promoción conjunta con el museo Guggenheim e impulsando nuevas exposiciones. Ha puesto como ejemplo la realización de una muestra dedicada a mujeres artistas.

PUBLICACIÓN DE OBRAS CLÁSICAS EN LA WEB FORAL

La comisión de Euskera y Cultura ha acordado, también, que la Diputación incorpore en su página web las “obras clásicas griegas y latinas traducidas al euskera antes de 1936” por encontrarse libres de derechos de autor. La iniciativa del PP ha salido adelante por un pequeño margen de 3 votos a favor (PP y Podemos Bizkaia) y 2 en contra (PSE-EE), y por las 10 abstenciones contabilizadas de PNV y EH Bildu.

Todos los grupos junteros han coincidido en que dicha información debe estar al servicio de los ciudadanos en la web foral, si bien PSE-EE, EH Bildu y PNV, han puntualizado que parte de estos clásicos en euskera ya se encuentran alojados en otras webs institucionales como la página del Gobierno vasco “kulturklik” o la plataforma de la Fundación Sancho el Sabio (fsancho-sabio.es). “Bastaría con un enlace a estas páginas”, ha mantenido el socialista Juan Otermin. Txusa Padrones (Bildu) y Ana Esther Furundarena (PNV) creen también que serían suficientes “links” con el objeto de “optimizar recursos” o “no duplicar esfuerzos”.

EXPLICACIONES SOBRE EL MURAL DE ARANOA

La sesión parlamentaria ha arrancado con las explicaciones de la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, sobre la situación y estado de conservación del mural tríptico titulado “Bizkaia” pintado por Juan de Aranoa, en 1958, en una sala del Palacio Foral. Tanto EH Bildu como el PP habían solicitado su presencia en la Cámara vizcaína al detectar que la sala que albergaba dicha obra había sido convertida en un “almacén/oficina”. El mural ha estado rodeado de mesas, sillas, mobiliario de oficina, entre otros objetos, se han quejado estas dos formaciones



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La diputada ha “aceptado el reproche” lanzado por ambos partidos y ha informado de que la sala fue despejada “días después” de conocerse la situación. Ha reconocido que la decisión para ubicar allí servicios administrativos, “que no almacén” –ha puntualizado– no había sido “acertada”. Bilbao ha explicado que se ordenó de manera “inmediata” el traslado de las oficinas a otro lugar y el espacio donde descansa la obra de Aranoa “está despejado” actualmente. El lugar ha sido "siempre" zona de paso y, "desde hace 15 años", el área de enfrente zona de trabajo, aunque no fue "hasta mediados de 2014" cuando el espacio más cercano a la obra se utilizó como zona de oficinas.

En cuanto al estado de la misma, Bilbao ha señalado que, según los servicios de conservación, la obra se encuentra “en líneas generales en buenas condiciones, aunque necesita intervenciones conservadoras”. Tanto EH Bildu como PP habían apuntado a que parte de la obra se había deteriorado. La diputada ha señalado que existe partida presupuestaria para atender posibles labores de restauración de ésta y otras obras que forman parte del patrimonio foral vizcaíno. Ha explicado que harán, a partir de ahora, una labor de “sistematización” para chequear periódicamente el estado de este tipo de obras.

Los grupos junteros se han mostrado conformes con las explicaciones de la diputada y han coincidido en la necesidad de que la Diputación ponga en valor las obras del Palacio foral, apuntando a que, en un futuro, se eliminen las zonas administrativas. Bilbao ha explicado que barajan la posibilidad de exponer los tesoros del Palacio “a partir del año 2017”, aunque la decisión sobre los usos de la sede “no me competen a mi”. Ha reconocido que se están analizando “el tipo de usos que pueda tener en el futuro” el edificio, pero que hay que tener en cuenta que, en la sede de Gran Vía, trabaja “muchísima gente” y la salida de los trabajadores supondría “mucho dinero público”.